

EUSKOTRENEK LARUNBATEA TREN ETA TRANBIA ZERBITZUAK ALDATU ETA INDARTU EGINGO DITU BILBON ETA DONOSTIAN SAN TOMAS AZOKA DELA ETA

Euskotren larunbatean, abenduaren 21ean, tren eta tranbia zerbitzuak Bilbon eta Donostian San Tomas azokek sortuko dituzten joan-etorrien beharriaz egokituko da.

GIPUZKOAKO TRENBIDEA

- E2 Topoa: Topoaren goizeko maiztasunak gehitu egingo dira, Irun eta Amara artean trenak 15 minutuz behin. Gainerako zerbitzua, gauekoa barne, larunbatetako ohikoa izango da. Altzarako zerbitzuak ere asteburuetako ohikoak izango dira.
- E1 Zumaia – Amara - Zumaia: Zumaia eta Amara artean maiztasuna 30 minutukoa izango da egunean zehar.

BIZKAIKO TRENBIDEA

- E3 Bermeo-Matiko-Bermeo: E4 lineako ohiko ordutegia egun osoan zehar aldatuko da maiztasun gehiago eskaini ahal izateko. Noranzko bietan goizeko zerbitzua egongo da 30 minutuz behin. Gauez, ohiko ordutegiaren osagarri bezala, Matikotik Bermeora tren bereziak irtengo dira honako orduetan 00:45, 2:45, 4:45 eta 6:15. Tren hauek zuzenak izango dira eta nahiz eta bitarteko geltoki guztietan geratuko den, Amorebietan ez da tren aldaketarik egin behar.
- E1 Matiko-Ermua-Matiko: trenak 30 minutuz behin egun osoan zehar eta gaueko ohiko zerbitzua, bi orduz behin.
- E3 Lezama-Matiko-Lezama: ohiko zerbitzua 30 minutuko maiztasunarekin egunean zehar eta gaueko trenak bi orduz behin.
- 3. Linea: ohiko ordutegia zerbitzu gehigarriekin indartuko da.

USANSOLOKO OSPITALERAKO TREN-BUS ZERBITZUA

E4 linean burutuko diren aldaketak direla eta, Usansoloko Ospitalera doan autobusaren ordutegia ere aldatu egingo da.

BILBOKO TRANBIA

San Tomas azoka dela eta, Alde Zaharra inguruan egoten den jende pilaketa dela eta, tranbia zerbitzuetan honako aldaketak aurreikusten dira:

Atxuri/La Casilla

Zerbitzua hasten denetik 10:28ra arte tranbiak 10 minutuz behin ibiliko dira. Ordu horretatik aurrera Arriaga-Abando artean ez da ibiliko.

Atxuri-Arriaga

- 10:40tik 22:25era tranbia Atxuri-Arriaga artean ibiliko da 15 minutuz behin.

Abando-La Casilla

- 10:44tik 21:34ra bitartean Abando-La Casilla tartean 10 minutuz behin ibiliko dira. 21:34tik aurrera, 15 minutuz behin. Azken zerbitzua 23:04an.

La Casilla/Atxuri

10:11 arte zerbitzua 10 minutuz behin zirkulazioekin indartuko da. Ordu horretatik aurrera Abando-Arriaga artean ez da ibiliko. 22:56an, 23:11n eta 23:26an La Casilla-Atxuri artean zerbitzua bere osotasunean eskainiko da.

La Casilla-Abando

- 10:21 eta 21:11 bitartean tranbia La Casilla-Abando artean ibiliko da 10 minutuz behin.
- 21:11 eta 22:41 bitartean, 15 minutuz behin.

Arriaga- Atxuri

- 10:46 eta 22:31 bitartean Arriaga-Atxuri artean 15 minutuz behin.

Gainerako zerbitzuak ohi bezala ibiliko dira.

Informazio gehiago: 944 333 333 telefono zenbakian, www.euskotren.eus web gunean, @euskotrenEJGV twitter gunean eta Euskotreneko APP ofizialean

Igorpen data: 2019ko abenduaren 19a

Euskadi, auzolana, bien común

